

## GIG 23

## AIZBELTZEKO DIAKLASAK

BALIO INTRINTSEKOA: **2,75**

BALIAGARRITASUN-MAILA: **2,50**

KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

## GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Azaleramendu ikusgarri hau Aizbeltz inguruan dago (aipatu beharrekoa da oso jende gutxi ibiltzen dela inguru horretan). Flyscharen segida osoan, diaklasek eragindako zartadura ahul asko daude, eta diaklasak, gainera, kaltzita zuriz beteta egon ohi direnez, erraz identifikatzen dira lekuan bertan.

Deformazio-faseen arabera, zenbait diaklasa-sistema bereizten dira, eta sistema bakoitza, noski, periodo jakin bati dagokio. Zenbait lekutan, sistemen arteko ebakidurak ikus daitezke, eta ebakidura guztien artean, Aizbeltzeko karekizko turbiditakoa da ikusgarriena; deigarria da benetan. Hiru sistema nagusi bereizten dira, elkarren arteko denbora-loturak argi eta garbi erakusten dituztenak, elkar ebakitzen dutelako eta elkarrekiko higitzen direlako.

Halako azaleramendu asko daude Geoparkeko flyschean, baina hirurik sistema horien garapena bereziki azpimarratzekoa da, eta horregatik izan da aukeratua GIG hau.

## NOLA BERTARATU

Elorriagako atsedeneketik behera doan pistatik marearteko zabalguneraino jaits daiteke, Baratzazarrak izeneko lekuraino, eta gero, handik 10 minutu oinez joan behar da mendebalderantz. Baina ura behe samarrean dagoenean soilik joan daiteke bertara, eta arriskutsu samarra da.

## GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

*In situ*. Itzurun hondartzan ere badaude zenbait adibide, baina ez dira hain ikusgarriak.



Hiru diaklasa-sistema konjugatu dituen azaleramenduaren ikuspegi orokorra.



## UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 557178 m / Y= 4793810 m / Alt.= 4 m



Desordenatuago dauden zenbait zartaduraren arteko ebakidura aurreko estratuan, gertutik ikusita.